# Hizkuntzalaritza I
# 2. gaia:
# **Hizkuntzaren unibertsaltasuna eta aldakortasuna**

2.1. Hizkuntzak, hizkerak eta barietateak

2.2. Ahozko hizkuntzak eta Zeinu Hizkuntzak

2.3. Hizkuntzak ukipenean: pidginak eta kreolerak

2.4. Munduko hizkuntzak eta hauek sailkatzeko irizpideak

<u>Oinarrizko Irakurgaiak</u>

- Casado, C. & V. Marrero, 2009, “Variación y cambio lingüístico”.
- Casado, C. & E. Gutiérrez, 2009, “Las lenguas del mundo”.
- Escandell et al., 2011/2015. *Invitación a la Lingüística*, Madrid: E. U. Ramon Areces & UNED. 1. kapitulua, 20-46.
- Moreno Cabrera, J.C., 2000. “Lengua y dialecto” (*La Dignidad e igualdad de las lenguas. Crítica de la discriminación lingüística*)
- Pinker, S. 1994. *Hizkuntzaren sena*, Bilbo: UPV/EHU. 2. Kapitulua: “Hitzontziak”.

# Sarrera/Eztabaida: Hizkuntza-aniztasunaren inguruko mito batzuk



- Kristauen Itun Zaharrean: hizkuntza aniztasuna Jainkoaren zigorra da. Babelgo dorrea.
- Hizkuntza batzuk beste batzuk baino aurreratuagoak dira?
- Hizkuntza batzuk kulturarako hizkuntzak dira, beste batzuk ez?
- Hizkuntza bati beti dagokio nazio bat? Eta estatu bat?
- Hizkuntza asko egoteak gizateriaren garapena oztopatzen du?
- Hizkuntzaren aldaera estandarra hobea da, beste aldaerak baino zuzenagoa?
- Hizkuntza batzuk errazak dira, beste batzuk, berriz, zailak?
- Hizkuntza batzuk ikasteko ezinezkoak dira?

# 2.1. Hizkuntzak, hizkerak eta barietateak

Aurreko gaian proposatu dugu hizkuntza jakin bat bereganatzea:

Hizkuntzarako gaitasuna + H-rekiko esperientzia → H-ren gramatika

H: hizkuntza jakin bat
(euskara, alemana, txinera, etab.)

- Baina hizkuntza bereko hiztunek ez dute berdin hitzegiten: ***hizkuntzaren barneko aldaerak (barietate intralinguistikoa)***
- Zer da aldatzen dena?
  - Ezberdintasun lexikalak
  - Ezberdintasun fonologikoak
  - Ezberdintasun morfosintaktikoak
  - Ezberdintasun pragmatikoa

# Hizkuntza aldaerak

Hizkuntza bereko hiztunek ez dute berdin hitzegiten:

➔ ***hizkuntzaren barneko aldaerak*** (***barietate intralinguistikoak***)

- Zer da aldatzen dena?
  - **<u>Ezberdintasun lexikalak</u>**
  - *enero/ilbaltz/izotzila/neguila/urtarrila...*
  - *ordu/oren ; etorri /jin*
  - *tximeleta (tekn.); pinpilinpauxa, mitxeleta, zintzitoil, txiruliru, txiribiri, farfail, tximirrika, txilipitaina, sorgin-oilo, matxita, mitxirrika, jainkoilo, apex*
  - **<u>Ezberdintasun fonologikoak</u>**

/los niños/ ➔ [losniŋos] / [lo$^{h}$niŋo] /[loniŋo]

/ereiaro/ (= “ekaina”): [ereiaro], [erearo], [eriaro], [eriero]... (EHA)

/abwela/: [a β̞ w e l a] / [a ɣ̞ w e l a]

# Hizkuntza aldaerak

- **<u>Ezberdintasun morfosintaktikoak</u>**

  - Egin ahal da  vs. Egiten ahal da

  - Joni eman diot vs. Joni eman dut

  - Zeini emain diozu liburua? vs.

  Zeini diozu liburua eman?

  - JONI eman diot liburua vs. JONI diot liburua eman

  - eman deutsot /dizut/derautzot/darotzat/derautzat...

  - etorri zait /dakit / jat....
- - La he visto vs. Le he visto

  - ¿Qué quieres tú?  vs. ¿Qué tú quieres?

  - Se me ha caído vs. Me se ha caído.
- I can’t get any satisfaction vs.

  I can’t get no  satisfaction

# Hikuntza aldaerak

- **<u>Ezberdintasun pragmatikoak</u>**

  Faktore pragmatikoak: testuinguruaren /egoeraren eragina (adibidez, egoera komunikatiboa (non, noiz, zeinen aurrean...), igorlearen eta hartzailearen arteko erlazio pertsonalak, xedea, mezu mota, urruntasun sozialak, ....)

- Joan naiz vs joan nauk
- Te he visto vs. Le he visto (a usted).

# Hizkuntza aldaerak

Hizkuntza bereko hiztunek ez dute berdin hitzegiten: ***hizkuntzaren barneko aldaerak (barietate intralinguistikoa)***

- **Zer da aldatzen dena?**
  - Ezberdintasun lexikalak
  - Ezberdintasun fonologikoak
  - Ezberdintasun morfosintaktikoak
  - Ezberdintasun pragmatikoak

- **Zeren arabera aldatzen da?**
  - Aldaera diatopikoa (geografikoa) → dialektoak
  - Aldaera diastratikoa ((maila) soziala)→ soziolektoak
  - Aldaera diafasikoa (egoera komunikatiboen araberakoa) → erregistroak

# Hizkuntza aldaerak

## *Hizkuntzaren barneko aldaerak (barietate intralinguistikoa).*

- **Zer da aldatzen dena?** Ezberdintasun lexikalak, fonologikoak, morfosintaktikoak, pragmatikoak
- **Zeren arabera aldatzen da?**
  - **Aldaera/barietate diatopikoa (geografikoa):** geografiaren araberako hizkuntza aldaketak

    → dialektoak
  - **Aldaera/barietate diastratikoa (soziala)**: aldagai sozialen araberako hizkuntza aldaketak

    → soziolektoak
  - **Aldaera diafasikoa (egoera komunikatiboen edo testuinguruaren araberakoa)**: hiztunak berak dauzkan erregistroen araberako aldaketak
  - → erregistroak edo estiloak

# Hizkuntza aldaerak

- **Zeren arabera aldatzen da?**

- **Aldaera/barietatea diatopikoa** (geografikoa)**:** → dialektoak
- **Aldaera/barietate diastratikoa** (soziala): → soziolektoak

} hiztunaren araberakoa

- **Aldaera/barietate diafasikoa** (egoera erabileraren komunikatiboen/testuinguruaren araberakoa → erregistroak

} araberakoa

- Honetaz gain, **idiolektoa** dugu: aldaera edo barietate indibiduala, gizabanako batek testuinguru edo egoera konkretu batean erabiltzen duen aldaera, bereak dituen ezaugarri dialekal eta sozialekin. (Barietate honetan beste hirurak biltzen dira)

# Hizkuntza aldaerak

- Informazio osagarria:

  http://www.euskomedia.org/aunamendi/ee152148/136204?idi=es